



## Argentinara fan aurreko despedidia

**N**ahiz eta aspalditxuan amerikar asko Euskal Herrira datorren, hemendik hara be makiña bat euskaldun fanda dago, ba. Kolonizaziño denporan ez ezik, XIX. gizaldixan eta XX.aren lehenengo erdialdixan be jente askok jo eben Ameriketaruntz bizimodu hobiaren billa. Batzuen batzuk aberastu ziran, beste batzuk ez hainbeste. Bueltau be egin ziran batzuk --bisittan edo hemen geraketako--, baiña beste hainbat han geldittu zan betiko, euskal jatorriko abizen ugari lurralde hareittan zabalduaz.

Oñatittik be jokera haundixa egon zan itsasoz bestaldeko herrialdetara: Kuba, Mexiko, Venezuela, Perura, adibidez; baiña, batez be, Txilera eta Argentinara esango neuke. Oñatiarren zenbat senide eztago gaur egunian Hegoamerikako bi errepublika horreittan? Gaurko fotografaxia honek be Argentinara fandako oñatiar baten despedidiarekin dako zerikusixa: Goribar auzoko Antzokua baserriko semia zan Emeterio Zubiarena. Ameriketara orain dala hirurogei bat urte alde egin eben Meteriok han enpresa bat jartera. Bera hil bazan be, Argentinan jarraitetan daue alargunak, Malen Txintxurreta, Goixenexeko alabiak, eta euren seme-alabak

Argazkixan lagunez inguratuta agerketan da Meterio Zubia Etxeberrianekeo terrazan despedida-egunian. Kontuan hartzekua da, lagunez aparte, Oñatin oraindiok gogoraketan diran musikari famauak ikusi geinkiela: Tomas Uribarri atabalarixa, Anjel Iriarte txistularixa eta Luis Oñate soñujolia. Ezkerretik eskumara honeitxek dira euron izen-pellidua:

**Zutik:** Jenaro Arregi, Makalena; Tomas Uribarri, Danborrerotxo; Santi Ugarte; Antonio Mendiola; honen atzian Juanito Zelaia Upaingua; Joxe Mari Madinazkoitia; Alberto Altuna; Juanito Atxa; Anjel Mendiola; honen atzian, erdi ezkutuan Migel Ugarte, Kanpiazelaiakua [?] eta Joxe Mari Letamendi [?]; Ignazio Enparantza; X. X.; Anton Guridi, Ipentza; Bixente Ormazabal; honen atzekua durangar bat [?]; Joxe Urzelai. Elorduikua; atzekua X. X.; Rikardo Elortza; Doroteo Kortabarria, X. X.; Eduardo Madinazkoitia; eta Joxe Ramon Onraita, Anjel Iriarteren danboliñarekin.

**Makurtuta:** Tomas Palacios; Joxe Mari Arrazola; Luis Oñate, soñujolia; Meterio Zubia, Antzo; honen aurrian belauniko, Juanito Azkune; Manolo Etxaniz, kittarraduna; eta Anjel Iriarte, Panpott txistularixa.

J. E.

Fotografaxia Petri Ugarteren bidez aillegau xaku. Argibidiak, berriz, Petrik berak, Karmen Ituarte, Alberto Altunak, Beatriz Zarketak eta Maria Anjeles Moiuak eskuratu doskue. Eskerrik asko danoiri!